

Itzurrun

Osteguna, 2011ko apirilaren 7a

'Novedades' hiriko lehen aldizkari grafikoetako bat izan zen; 402 zenbaki kaleratu zituzten II-III

XX. MENDE HASIERAREN BILAKAERAREN LEKUKO



Elefanteak, Kontxako hondartzan, joan den mendearren hasieran. KUTXA FOTOTEKA

Triste egon arren, Elizabeth Taylorrek bere irribarrerik ederrena ekarri zuen

Zinemaldiko une berezietakoaren protagonista joan den hilabetean hil zen; 1973ko ekitaldian hartu zuen parte, Richard Burton aktoreaz banandu berrio VII



Elizabeth Taylor, eskubian, Dino Restivorekin. DINO RESTIVO, EMBAJADOR DE ITALIA EN SAN SEBASTIAN

luze-zabalean >



'Novedades'-ek argazki artistikoak zein dokumentalak biltzen zituen. KUTXA FOTOTEKA

'Novedades' Donostiako lehen aldizkari grafikoetako bat izan zen; egun, hark utzitako irudien informazioari esker joan den mende hasierako gure gizartea nolakoa zen jakin dezakegu.

Argazkiak, iraganaren ispilu

Olaia Gil Sanchez

Novedades aldizkariaren ikerketatik abiatuta, XX. mendearen lehen hereneko euskal gizartea aztertu du Maddi Elorzak (Ormaiztegi, 1977) *Iragaren ispilu* liburuan. Aldizkaria Donostian kaleratzen zen eta lantaldeko argazkilarietako askok gurean egiten zuten lan.

'El Pueblo Vasco' ren gehigarria
Novedades Madrilgo *Nuevo Mundo* aldizkariaren eredu jarraituz sortu zuten eta *El Pueblo Vasco* egunkariaren gehigarri gisa kaleratzen zen. Donostiako informazioa nagusi izan ohi zen arren, Gipuzkoako, Gasteiz, Bilbo eta Iruñeko berriak tartekatzen zituen. Irudiaren aldeko apustu irmoa zen eta, hori dela-eta, bere bizitzan zehar 22.000 irudi baino gehiago argi-

taratu zituzten -batzuek artistikoak eta besteak, guztiz dokumentalak-. Elorzak, bere ikerketa burutu eta gizartearen bilakaera aztertzeke asmoz, zenbaki guztietako argazkiak digitalizatu eta katalogatu zituen.

*Novedades*ek hiru aro izan zituen. Lehen biak, Rafael Pikabea Legiaren zuzendaritzapean eta azkeneko eta laburrena, haren seme Rafael Pikabea Etxebarriaren kargu. Lehen tartean, 1909ko ekainetik 1916ko apirila arte kaleratu zuten, astero; bigarreanean, 1916ko maiatzetik 1919ko otsaila arte, hilero, eta *magazine* itxura hartuta. Azkenik, 1928ko abuztutik 1929ko irailla arte, *aldizkari ilustratua* gisa argitaratu zuten. Guztira, 402 zenbaki izan ziren.

Zenbaki bat, faltan

Elorzak lan handia egin zuen aldizkariaren zenbakiak bilatzen.

Hainbat artxibategitan izan zen horretarako: Koldo Mitxelena, Eresbilen, Sancho El Sabio Fundazioan, Deustuko Unibertsitatean, Nafarroako udal artxiboan... Bi zenbaki falta zitzaizkionean, *Iraganaren ispilu* liburua inprentara bidali zuten eta, orduan, horietako bat aurkitu zuten. Egun, beraz, bakarra falta zaio: 387. zenbakia.

Argazkilariak

Liburuan aldizkarian parte hartu zuten 35 argazkilariren biografia laburrak bildu ditu Ormaiztegiak. Argazkilarieko askok argitaratu zuten irudiren bat bertan. Donostiarekin lotutako argazkilarien artean, besteak beste, hurrengoak daude: Abelardo de la Barrera, Leopoldo eta Frederic Ducloux, Benjamin Resines, Willy Koch, Pascual Marin, Mercedes Malka, Pedro Lecuona...

• ogil@hitza.info



Aldizkariak lan pedagogikoa egiten zuen; irudian, Usandizaga. ERESBIL



Garaiko familia bat. KUTXA FOTOTEKA

Maddi Elorza ◉ Ikus-entzunezko komunikazioan doktorea

‘Iraganaren ispilu’ liburuaren egileak XX. mende hasierako gizartea aztertu du ‘Novedades’ argitalpenaren azterketatik abiatuta; aldizkaria Garibay kalean argitaratzen zen eta Donostiak oihartzun handia zuen bere orrialdeetan.

«Aldizkaria bonboi kaxa bat bezalakoa da, beti gauzak atera ditzakezu»

Olaia Gil Sanchez

Giza zientzietan lizentziatu ostean, Maddi Elorzak (Ormaiztegi, 1977) Ikus-entzunezko komunikazioan doktoratzea erabaki zuen. Argazkilaritzaren inguruko gaien bat landu nahi zuen, eta Garibay kalean argitaratzen zen *Novedades* aldizkari grafikoarekin topo egitean, «altxor bat» aurkitu zuela iruditu zitzaion. 2003tik ikertzaile lanetan aritu da eta, orain, *Iraganaren ispilu*, *Euskal Herria eta Novedades aldizkaria* liburuak kaleratu du bere tesia herritarrei hurbiltzeko asmoz.

‘Novedades’ XX. mende hasierako aldizkaria da. Zerk eraman zintuen haren inguruko ikerketa egitera?

Alde batetik, gaiaren inguruan oso gutxi argitaratuta dagoela konturatu nintzen eta, bestetik, aldizkari grafikoaren hastapenen inguruan ikertzea erakargarria egiten zitzaidan. Garai hartan zein argazkilaria genituen jakin nahi nuen eta, era berean, gizarteari buruz zeozer gehiago jakiteko bidea zela uste nuen.

Orduan nolako azen argazkilaria lanbidea?

Testuinguru historikoari begiratu gero, lehenago, XIX. mendean, argazkilaria asko atzeritarrak ziren. Aduana pasa eta trenaren bidez etortzen ziren gurera. Donostiara iritsi eta etxe jakin batzuetan ezartzen ziren, oro har, etxe altuetan eta ganbaretan, bertan argia ez zelako naturala. 1880an, Donostian 3 argazkilaria besterik ez zeuden erregistratuta, baina 1910ean jada 27 ziren.

Pixkanaka, asko aldatu dira gauzak.

Orduko askoz lanbide erromantikoagoa zen. Desberdina zen, bai ofizioa eta baita argazki-mota ere, gehienak erretratoak baitziren. Estudio batean argazki bat ateratzera joateak nolabaiteko maila ekonomikoa eskatzen zuen. Egun, kamerak demokratizatuta daude, baina orduan argazkilariek baino ez zituzten.

Argazkietatik abiatuz, orduko gizartea aztertu duzu. Zein irakurketa egin duzu Donostiaren inguruan?

Novedades jarraituz gero, hiria nola eraiki zen ikus daiteke eta udarak zein garrantzia zuen. Orduan oso ezberdinak ziren azaroa eta uztaila. Uztailan hiria jendez betetzen zen –jende oso ezberdin askoz!– eta horrek Donostiari izaera berezia eman dio, herriek ez dutena. Donostia irekiagoa da, *udal-*



OLAIA GIL SANCHEZ

dietako hiri izatea erabakitzearen ondorio. Urte haietan forma hartzen zihoan: antzoki handi bat dugu, kasinoa... guztia oso *ponposoa*.

Gipuzkoa barnealdeak, ordea, baseritarra izaten jarraitzen zuen.

Bai, oso ezberdina da 1900 urtea Tolosan, Goierri edo Donostian. Nik uste Donostiak ondo egin zuela bere aukeraketa: industria kanpoaldean jarri zuen, portua Pasaietan... Hiria egiten da ondo, politiki eta polit. Eta orain ere polita daukagu.

Zein paper jokatzeko zuen aldizkariaren zuzendaritzak?

*Novedades*en atzetik bi lagun daukela esan daiteke. Batetik, Rafael Pikabea, aldizkariko eta *El Pueblo vasco* egunkari zuzendaria, garaiko diputatua eta senataria. Eta bestetik, bere koinatua, Toribio Noain, aldizkariko zuzendari artistikoa, pisu handia zuena, aldizkarian argitaratzen zen argazki kopuru handia dela-eta –60 baino gehiago, zenbakiko–. Biak ala biak, kontziente dira gizarteko alderdi batzuk aldatzen ari direla

eta, argazkien bitartez, bi aldeak jasotzen ahalegintzen dira. Esaterako, *Baserritarra uzta jasotzen* izeneko argazki bat argitara zezaket eta, zenbaki berean, *Industria Eibarren* izeneko beste bat.

Argitalpenaren lehen aroan kultura artistikoari garrantzia handia eman zioten.

Bai analfabetismo indizea ikaragarria zen eta, hori dela-eta, nolabaiteko jardun pedagogikoa egiten saiatu ziren. Besteak beste, *Museo del Pradoko* artelanak jaso zitzaizketen, baita Usandizaga edo

Monzonen partiturak berak ere. Irakurlearekin harreman zuzena mantentzen saiatzen ziren eta horretarako lehiaketak ere antolatzen zituzten, hala nola, *Haurrentzako pintura lehiaketa*. Montes Iturrioz margolariak, adibidez, lehiaketa hau irabazi zuen haurra zela.

Zein harrera izan zuen aldizkariak herritarren artean?

Nik uste, ona, gure aitona-amonek oroimenean duten aldizkari bat baita. Urte asko iraun zuen, editorial handi baten eta *El Pueblo vasco* egunkariaren babespean baitzegoen. Gainera, Erdialdean egoitza zuen. Azken buruan, aldizkari lokal eta popularra zen.

Zer helarazi nahi diezu irakurleei liburu honen bitartez?

Gizarteari *Novedades* zer zen azaldu nahi diot, zein zen argazkien eta argazkilarien egoera XX. mende hasieran, eta batez ere, bidea ireki nahi dut beste ikerketa batzuetara. Ni lanean hasi nintzenean material guztia oso despertsatuta zegoen, baina agian, orain, norbaitek argazkilariren bati eutsi nahi dio, edo beste zerbait ikeritu. *Novedades* aldizkaria bonboi kaxa bat bezalakoa da, beti gauzak atera ditzakezu.

«‘Novedades’ jarraituta, hiria nola eraiki zen ikus daiteke eta udak zein garrantzia zuen»

«Analfabetismo indize handia zela-eta, jardun pedagogikoa egiten saiatu ziren»

Zuk zeuk beste alorren bat ikertu nahiko zenuke?

Argazkilaria interesgarri asko daude eta nik gutxi batzuk jorratu ditut, labur-labur. Bestetik, *Novedades*eko testuak ere oso interesgarriak dira eta gizartearen beste ikuspuntu bat eskaintzen dute. Azorin edo Pedro Bazanek bertan idatzi ohi zuten, baita emakume sorta handi batek ere, ezizenekin sinatzen duenak.

Emakume argazkilariek baziren?

Mercedes Malka, Carmen Resines eta Carmen Bayet de Montana aipatzen ditut. Batez ere, argazkilarien alabak aurki genitzakeen, ofizioa ikasi zutenak.

◉ogil@hitza.info

TAO sistema abian jartzeko prest dira Benta Berrin eta Ondarretan

➔ Benta Berrin eta Ondarretan aparkalekuak margotu eta makinak jarri dituzte dagoeneko. TAO sistema abian jarri aurretik, ordea, erabiltzaileak informatzen ari dira langileak. Horrenbestez, hilaren 14a arte bederen, ez dute ez ordaintzeagatik isunik jarriko. XABIER ETXABE



Hemen da Giza Eskubideen Zinemaldia

➔ Astebete iraungo duen IX. Giza Eskubideen Zinemaldiari ekingo diote bihar. Aurtengo jaialdia berezia izango da Donostia Kulturaren zine unitateko zuzendari Josemi Beltranentzat, bere lehen ekitaldia izango baita jaialdiko arduradun nagusi izendatu zutenetik. NEREA LIZARRALDE

Enolia azoka egin dute bosgarren urtez

➔ Bosgarren urtez jarraian, Enolia azoka antolatu dute Maria Cristina hotolean. Horrenbestez, besteak beste, olio eta ardoa protagonistak izan dira egun bakarrean egiten den ekimen honen bitartez. MIKEL GOÑI



Hamahiru zinemagileri buruzko liburua kaleratu du Mikel Garciak

➔ Mikel Garcia kazetariak Zeluloidezko begiradak liburua aurkeztu du, Jose Mari Goenagak eta Koldo Almandozek lagunduta. Hain zuzen ere, hiriko bi zinemagile horiez gain, beste hamaka zuzendarietara buruz aritu da argitalpenean; Julio Medem eta Jon Garaño donostiarak, tartean. NEREA LIZARRALDE



Herritarren zerbitzura jarri da Euskal Memoria Fundazioa

➔ Ireki berri dituen dokumentazio gunea eta internet ataria aurkeztu dituzte Euskal Memoria Fundazioko kide Arantxa Erasunek eta Iñaki Egañak. Egiako Ametzagaina kalean egoitza duen elkarteak idatziak, irudiak eta testigantzak bildu ditu herritarren eskura jartzeko helburuarekin. MAITANE ALDANONDO



Ehun bat ikaslek ekarpenak egin dizkiote Udalari

➔ Arantzazuko Ama, Antigua Luberrin, La Asuncion, AGI eta Jesuitinas ikastetxeetako gazteek hartu dute parte aurtengo Entzunaldi Publikoan. Aieteko Topalekuan bildutako ehun ikasleek hainbat ekarpen egin dizkiote Udalari; entsegu gela gehiago edota itsuentzat guneak egoki ditzala eskatu diote, besteak beste. XABIER ETXABE



Trenbidea izan dute hizpide

➔ Foru Aldundiak hainbat aditu bildu ditu trenbideari buruzko mintegian. Hitzaldietan, Leber ingeniariak etxeko Mikel Murgak esan du metroa egunero 55.000 donostiarrek erabiltzea aurreikusi dutela. Jesus Aristi aholkulariak, berriz, Abiadura Handiko Trena eta trenbide arrunta bateratzea proposatu du. XABIER ETXABE



Tamesis ibaian lehiatu dira Ur-Kirolak eta Arraun Lagunak

➔ The Road of The River Race izeneko estropada jokatu dute, joan den asteburuan, 600 bat ontzik. Tamesis ibaian lehiatu direnen artean, Ur-Kirolak eta Arraun Lagunak elkarrekin lehiatu dira. IRUTXULOKO HITZA



Iritzia

TAO



Aritz Sorzabal Kazetaria

Trafiko eta Aparkamenturako Ordenantza. Horixe da TAO siglaren esanahia. Askok ez dute ditzosko hiru letra horien definizio zehatza jakingo, baina herritar guztiak ondo baino hobeto dakite zer den; batzuek noizbait isunen bat jaso dutelako edota gehienak hirian autoa aparkatzeagatik ordaintzera behartuak izaten direlako.

Azken hau gerta ez diezaiei, Zuatzu, Igarra eta Miramongo enpresa guneetako langileek TAO sistemaren aurkako protestak egin dituzte duela aste gutxi. Mobilizazio eta salaketan bitartez, momentuz behintzat, euren lantoki inguruko aparkalekuak ordenatzeko Udalak zuen asmoa geldiarazi dute. Ibaetan ere protestak egin dituzte; unibertsitateko ikasleek antolatuta, kasu honetan. Hauek, ordea, ez dute helburua lortu eta, ondorioz, euren zorritxarrerako, aparkatzeko eremua margotzen eta makinak jartzen ibili direla bertatik bertara ikusi dute egunotan.

Honen harira, makinak dagoeneko abian daudela ohartuta, eta aparkatzeko eremua margo-tuta dagoela ikusita, autoa uzteagatik ordaindu duen gidaririk izan da Benta Berrin. Kontua da datorren astea arte ez dutela isunik jarriko, egun hauek herritarrek informatzeko baliatu baitituzte TAOko langileek. Ordaindu dutenek, horrenbestez, txanpon batzuk galdu dituzte komunikazio kanpaina behar bezala egin ez dutelako.

Bestalde, makinatan ere akatsak aurkitu dituzte erabiltzaileek. Informazioa euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta frantsesez ematen dute bertan, eta hizkuntza bakoitzak dagokion bandera edo ikurra dauka... euskarak izan ezik. Kasu honetan, informazioa euskaraz jasotzea ahalbidetzen duen aukeran, ikurri-na ordez, Alemaniako bandera dago!

Bi bitxikeria besterik ez dira aipatutako hauek, baina, TAO sistemaren inguruan Donostian sortu den hika-mika kontutuan hartuta, nahikoa esanguratsuak dira; gauzak korrika eta presaka egiten dituztenaren seinale, alegia.

✉ asorzabal@hitza.info

bertso saioa

bertsotan Korrika

BERTSOLARIAK

BEÑAT GAZTELUMENDI

JON MAIA

AITOR MENDILUZE

MIREN AMURIZA

AITOR SARRIEGI

UXUE ALBERDI

GAI JARTZAILEA

UNAI ELIZASU

LARUNBATA **APIRILAK 16** DONOSTIAKO ANTZOKI ZAHARRA **20:00**

Sarrerak eskuratzeko salmenta puntuak

EGIAN, KATA TABERNA: Karmengo Ama kalea, 32

ANTIGUAN, GARAZI LIBURU DENDA: Matia kalea, 44

GROSEN, KISKURRA TABERNA: Gloria kalea, 1

ALTZAN, IPOTX TABERNA: Lauaizeta, 3

ERDIALDEAN, HONTZA LIBURU DENDA: Okendo kalea, 4

PUION, BAGERAREN ETA HITZAREN EGOITZA: Katalina Eleizegi behea, 36

HERRERAN, NIDO TABERNA: Jose Elozegi hiribidea, 130

AMARA BERRIN, AMARA BERRI AEK: Gregorio Ordoñez kalea, 7

Antolatzaileak:



IRUTXULOKO **hitza**

Babesleak:



donostiakultura.com



Joan den martxoaren 23an hil zen Zinemaldiko une gogoangarrietakoaren protagonista. Soilik 18 ordu eman zituen Donostian, baina nahikoa izan ziren Elizabeth Taylorren edertasunak 1973ko Zinemaldian historia egiteko.

Irribarre distiratsuen

Nerea Lizarralde

Cary Grant aktorea etortzekoa zen urtea izan zen. Orson Wellesek *F for Fake* aurkeztu zueneko. Victor Ericsek *El espíritu de la colmena* filmarekin Urrezko Maskorra eskuratu zueneko. Zinemaldia uztailean egin beharrean irailean egitea erabaki zuteneko. Jaialdiak 21 urte bete zitueneko. Baina, batez ere, Elizabeth Taylorren distirak donostiarrak liluratu zitueneko izan zen 1973ko Zinemaldia.

Night Watch beldurrezko filma aurkeztera etorri zen Taylor. Brian G. Hutton zinemagilearen lana, ordea, oharkabean pasa zen. Hollywoodeko divak bereganatu zituen flash guztiak. Bisita laburra izan zen. Soilik 18 ordu izan zen hirian. Bisita motza, eta gorabeheratsua, Taylorren bizitza bezalako. Arratsaldean heldu zen Hondarribiako aireportura, *Night Watch* filmaren proiektzioa Victoria Eugenia Antzokian hasi baino pare bat ordu lehenago. Maria Cristina hotolean zain zuen zale andana. Galtza bakeroak eta buruko biseraduna soinean jaitsi zen hegazkinetik. Aireportuan bertan arropaz aldatzeko asmoa zuen, baina maletak ez ziren agertu.


Dino Restivok, orduko harreman publikoen arduradunak, egin zion harrera Hondarribian bertan. Orkideak eskaini zizkion, eta Rolls Royce-ean eraman zuen hotelera. Restivo, erdi italiarra, erdi donostiarra, iragan hilabetean hil zen. Taylorrek hirian emandako 18 orduetatik 14 berekin egon zelako harro zegoen. Zinemaldiko oroitzapen ederretakoa izan zen Restivorentzat.

Iritsi bezala agertu behar izan zuen jendaurrean, ez zuen arropaz aldatzeko aukerarik izan. Ez ziren Elizabeth Taylorren garai onenak. Triste omen zegoen, Richard Burtonez banandu berria baitzen. Bete izan ohi zuen norbait alboan, baina orduan bakarrik zegoen. Bi aldiz ezkondu zen Burtonekin. Bizitzan zazpi senar izan zituen, eta gaiaz galdetzen ziotenean, hala esaten zuen: «Zer nahi duzu egitea? Lo bakarrik egitea?».

Hiru gorputzeko ispilua eskatu zuen, pelikularen estreinaldian eder jantzeko, baina Donostian ez zegoen halakorik. Maletak azken momentuan iritsi ziren. Pelikula hasi eta gero sartu zen aretoan. Ordu beteko atzerapenarekin. Zinemaldiaren zuzendariak, Miguel de Etxarrik, erabaki zuen proiektioarekin aurre-



Elizabeth Taylor, Victoria Eugenia Antzokiko eskaileretan, saria jantzita eta argazkilariek inguratuta. ZINEMALDIA



ra jarraitzea. Antzokia lepo zegoen eta jendea urduri jartzen hasia zen. Emanaldi hura zen Taylorren jendaurreko agerpen bakarra. Ez zuen prentsurrekorik, ezta elkarrizketarik egin behar.

Triste omen zegoen, Richard Burton aktoreaz banandu berria baitzen

Elizabeth Taylor nola hala jantzita iritsi zen Victoria Eugenia-*ra*. *Sari* bat soinean, baina eder. Distiratsu. Hasieran ikusleek

txistu egin zioten. Kanean zain zegoen jendea biraoak botatzen hasi zen, baina Taylorrek ez zuen bere irribarrea aurpegitik kendu. Aktoreak, gaztelaniaz bazekien zerbait. Mexikon, Cuernavacan, etxea erosi baitzuen Burtonekin: «Ez dakite nik badakidala gaztelaniaz. Badakit zer esaten ari diren, baina etorkizunean jendeak nire irribarrea izango du gogoa». Gero egin zioten txalo, Victoria Eugenia argiak piztu zituztenean. Eta arrazoia zuen Taylorrek. Zinemaldian historia egin zuen begirada moreko aktoreak, haren dotoreziak eta edertasu-

nak Victoria Eugeniako eskaile-*ra* igo zituenean. Flash guztiak konkistatu zituenean. Eszenatokian «excuse me» xuxurlatu omen zuen, eta txistuak txalo zaparrada bihurtu ziren.

Hiru gorputzeko ispilua eskatu zuen, baina Donostian ez zegoen halakorik

Ondoren, afari handi bat ospatu zuten udaletxean. Bi egun lehenago Franco Donostiara etortzekoa zen, baina azken momen-

tuan bertan behera utzi zuen bisita. Bufet izugarria prestatuta zegoen ja. Mihi gaiztoek diote jantzia gorde eta Elizabeth Taylorren omenezko afarian eskaini zutela.

Gordetzeko moduko esaldi ugari utzi zituen Cleopatrarren larrian sartu zen aktoreak. Osasun pattala izan zuen, baina bere bizitza pasioek gobernatzen zutela aitortu zuen. Donostian erakutsi zuen irribarreari hil arte eutsi zion: «Umorea da bizitzan jarraitzeko modu bakarra», esan ohi zuen Hollywoodeko urrezko aroaren erreginak.

●nlizarralde@hitza.info



Dino Restivok, Zinemaldiko harreman publikoen arduradunak, egin zion harrera Hondarribiako aireportuan. DINO RESTIVO, EMBAJADOR DE ITALIA EN SAN SEBASTIAN



Ehundik gora korrikalarik hartu zuten parte iazko ekitaldian. SUDUR KROSSA

Oztopoak jarri dizkioten arren, aurrera egin du Sudur Krossak eta larunbatean jokatuko dute bigarren urtez jarraian, Egiako parkean barrena sei kilometroko bidea eginez.

Sudurren lasterketa hemen da

Estitxu Zabala

Oztopoak oztopo, aurretik ere Sudur Krossa egingo dute Egiako parkean barrena, larunbat honetan bertan. Egiako lagun talde baten eskutik jaiotako lasterketak 125 korrikalari bildu zituen iazko saioan eta aurretik kopuru hori gainditzeko moduan izango dira, Udalak jarritako muga araua kenduta.

Parkeko belarra ez zapaltzeko deia egin dute, Udalari emandako fidantza bueltan jasotzeko

Udalak lasterketari oztopoak jarri zizkiola salatu zuten antolatzaileek martxoaren 15ean. Sudur Krossaren Facebook-eko orrian jarri zutenaren arabera, Udalak 1.500 euroko fidantza eskatu zion antolakuntzari, Egiako parkea erabiltzeagatik. Horretaz gain, partaidetza 130 korrikalarietara mugatzea agindu zion. Gauzak hala, lasterketako arduradunek izena ematea lehen bait lehen egitea gomendatu zuten, lekurik gabe ez geratzeko. Aldi berean, lasterketaren egunean parkeko belarra ez zapaltzeko deia

zabaldu zuten, fidantza bueltan jasotzeko. Hari horri tiraka, Udalak Egiako parkean moztu berri dituen zuhaitzengatik ere kexatu dira egitarra, inkoherentea dela baitiote.

Antolatzaileen zorionerako, ordea, hilabetea bukatu aurretik, Udalak partaidetza muga kentzea erabaki zuen. Edonola ere, martxoaren 28rako dagoeneko 70 korrikalarik baino gehiagok eman zuten izena lasterketan parte hartzeko. Baina antolatzaileek badute bete nahi duten zer-bait; iaz %35ekoa izan ondoren, emakumeen partaidetza zabal-tzea.

Askaria eta opariak

Ibilbideari dagokionean, ez du iazkoarekin alderatuz aldaketarik izango. Sei kilometrotako bidea egin beharko dute partaideek, hiru kilometroko ibilbideari bi itzuli emanez. Parkeko sarreratik hasita, parkearen behekalde-tik igaro beharko dute, Loiolako Erriberara joateko. Hala, Loiolako zubian itzulia eman arte jarraituko dute. Ondoren, Mikel Laboa pasealekutik igaroko dira berriro ere, goiko lorategietatik irteera lekura iritsi arte. Ibilbide hori bi aldiz egin ostean, askaria egingo dute Plaza Haundin.

Partaide guztiek lasterketako elastiko bana jasoko dute opari


moduan eta, horretaz gain, lasterketa bukatu eta Plaza Haundin biltzean, hainbat zozketa egingo dituzte: bi pertsonentzako afaria, Garraxi jatetxe bejetarianoan, Beti Boga tabernan eta Kata tabernan; Indos harategiko bi txuleta; La Torre gozotegiko pastelak; Zummy dendako mp4 bat eta Info Zazpi irratia elastikoak.

Kondairari, omenaldia

Larunbatean jokatu den lasterketaren izenak badu azalpena, egitarrek sudur handia dutela dioen kondairari omanalditxo egiteko modua baita. Azken momentua arte itxaroten duenak

↓ II. Sudur Krossa

- **Noiz.** Etzi, 17:00etan.
- **Ibilbidea.** Egiako parkean barrena jarritako zirkuituari bi itzuli eman beharko zaizkio.
- **Distantzia.** 3 kilometroko bi itzuli; 6 kilometro, guztira.
- **Izena ematea.** Lasterketaren egunean bertan oraindik ere izena emateko aukera egongo da. Lasterketa hasi baino ordu-bete lehenago arte.
- **Prezioa.** Aldez aurretik, 6 euro; egunean bertan, 9 euro.
- **Informazio gehiagorako.** Jon Jaka, 685.716.876.



Parkeari bi itzuli eman beharko diote lasterkariek. SUDUR KROSSA

ere parte hartzeko aukera izango du. Izan ere, larunbatean bertan, lasterketa hasi baino ordu-bete lehenago arte, izena emateko aukera egongo da parkean.

Lasterketaren promozioari begira, hainbat pertsonaia ere sor-

tu dituzte: Usain Toutx, Xudurri-na Panotxeb eta Xinkuko. Horiek guztiak bildu eta bideo bat osatu dute. *Youtuben* ikus daiteke: Sudur Krossa II Spota izenarekin.

● ezabala@hitza.info